

Euskal Herriko ondare zibila eta erlijiosoa. Gai oparoa eta eztabaidagarria

Edorta Kortadi Olano
Deustuko Unibertsitatea-Donostia

Euskal Herriko ondare zibila eta erlijiosoa gai oparoa bezain eztabaidagarria da. Euskal Herriko arte-ondarea ez da oso zabala, baina bai aski aberatsa eta adierazgarria, artikulua honetan ikusiko dugun bezala: ibilbide primitiboak, antzinakoak eta Erdi Arokoak, Errenazimentutik gaur egun arte. Era berean, beste alor hauek ere ukitzen dira: industria-ondarea, teknologia berriak, natura-guneak, parkeak, eta ondarea zaintzeko arazoak.

GAKO-HITZAK: Arte-ondarea · Ondare zibil eta erlijiosoa · Euskal Herria.

The Civil and Religious Heritage of the Basque Country is a passionate as well as a controversial issue. The Art Heritage of the Basque Country is not particularly wide but rich enough and notable, as we will see in this paper: primitive and ancient routes and from the middle ages going from the renaissance up to now. At the same time, we underline these areas too: industrial heritage, new technologies, nature, parcs and problems to look after the heritage..

KEY WORDS: Art heritage · Civil and religious heritage · Basque Country.

Jasotze-data: 2009-11-03. *Onartze-data:* 2009-11-03.

Sarrera

Euskal Herriko historia- eta arte-ondarea ez da, ez, oso zabala, baina bai aski aberatsa eta adierazgarria, hartaz ardura gaitetzen eta ezagut, azter, errespeta eta zain dezagun, guztion gozamenerako (Zenbait egile, 1982).

Garai batean ez bezala, orain badakigu edozein herritako ondarea mugatua dela, ez dela berdin mantentzen denbora pasatu ahala, eta funtsezko zatiren bat hondatuz gero, ez dela gauza bera izango. Ondare zibilari eta erlijiosoari buruzko gauzak eta pentsaera bera ere aldatu egin dira nabarmen. Egun inork ez dauka zalantzarik ondarea babestu, katalogatu eta zaharberritu egin behar dela memoria kolektiborako, denok ezagutu eta hartaz goza dezagun.

Leku guztietako herritar eta pertsonak aisialdirako lekuez aparte, beste gune eta leku natural batzuen zein gizakiak sortutakoen bila dabilta, behar espiritualak eta edertasun-irrika sakonenak asebetetze aldera. Nork ez du asteburuetan edo oporretan museo, gaztelu, natura-parke edota ozeanoarioren batera jo gorputzak eta espirituak goza dezaten? Oparotasunaren gizartean bizi gara eta eskaintzen dizkigun aukerak ere asko dira. Baina, gizarte txiro eta naturalak ere ez dira atzean geratzen, nahiz eta euren neurrira egin. Horren adibide ditugu Afrika eta Hego Amerika.

Ondareari buruz genituen ezagutza eta jakintzak nabarmen aldatu dira oso epe laburrean. Gizartean, gero eta jende gehiagok izan du arte- eta kultura-aberastasun horietara gerturatzeko aukera, telebista, ordenagailu, zinema zein aldizkari espezializatuen bidez. Gaur egun edozein herritar arruntek dauka bidaiatzeko, kontsumitzeko, gozatzeko edo ikasteko aukera, mundu eta galaxia honetako edozein tokitan. Ondarea guztiona da, eta denon lana da mundua zaintzea. Garapen iraunkorraren kontua ondarrera eta kulturara ere iritsi da (Leon, 1990).

1. Euskal Herria eta ondarea

Euskal Herriak ere badu bere ondarea, antzinako garaietan hasi eta gaur egun arte datorkiguna. Ondare hori ez da oso zabala, bai, ordea, aberatsa eta adierazgarria. Hor ditugu aurreneko aztarnetatik hasita: leize-zuloetako gizakiek hainbat tokitan (Altxerri, Ekain, Santimamiñe eta Isturitze) marraztutako hartz, orein eta bisonteak; erromatarren mosaiko eta zubiak (Iruñea, Gares eta Iruña-Veleia); kristauak eraikitako eliza eta katedralak (Done Jakue bidean, Eunate, Zaldudon, Getarian, Bilbon, eta Gasteizen); Errenazimentuan eta Barrokoan loiolatarrek, Gebaratarrek eta Nafarroako indianoek egindako jauregi eta dorretxeak; garai neoklasikoko eta ilustrazio-garaiko udaletxeak (Orendain, Donostia, Bilbo eta Gasteiz).

Gaur egun, gainera, ondare eta museo kontzeptuak askoz ere toki eta gune gehiago hartzen ditu bere baitan: herrigune eta herri arkeologiko zahar eta monumentalak, natura-parkeak eta lorategi botanikoak, animalien erreserbak, zoolo- gikoak, akuarioak eta ozeanoarioak, planetarioak eta zentro zientifikoak. Ikusten

den bezala, egungo ondarearen egoera duela mende bat baino aberatsagoa, konplexuagoa, dibertsifikatuagoa eta heterogeneoagoa da¹.

Horri guztiari jabetzaren konplexutasuna erantsi behar diogu; izan ere, jabeak era eta mota guztietakoak izan daitezke: publikoak, pribatuak, erakundeak, enpresak, udalak, probintziak, eskualdeak, nazioak, nazioarteak, gizateria; eta horietako bakoitzak ondareakiko dituen betebeharrak, lege eta eginkizunak. Kontua benetan konplexua eta poliedrikoa da, gurutzatua eta —askotan, gainera— kontrajarria eta nahasia ere bai. Hori guztia ona edo txarra izan daiteke ondarearen beraren etorkizunerako eta kontserbaziorako; beste hitz batzuekin esanda, mesede edo kalte egin liezaioke (Alonso Fernandez, 1993).

Legeek, araudiek, laguntzek eta era guztietako erakunde, antolakunde eta lehiaketek ez lukete inoiz ahaztu behar ondarea, lehen-lehenik, defendatu, zaindu eta sortu egin behar dela, eta ez luketela denborarik alferrik galdu behar itzulinguru eta interes kontrajarrietan.

Asko dira historian gertatu izan diren, eta egun ere gertatzen diren, desadostasun eta interes-talkak. Horregatik, hain zuzen, hainbaten proposamena izan da gobernuaren edota estatuaren eskuetan dauden ondare-ondasun guztiak —erakundeak izan edo pribatuak izan— publiko bihurtzea. Horren adibide ditugu, besteak beste, Iruñeko Elizbarrutiaren ondare-ondasunei buruzko egungo eztabaida, edota Euskal Herriko zenbait udaletakoa, hala nola Donostia eta Pasaiako natura- eta itsas-guneei buruzko eztabaida².

Horrelako neurriak defendatzen dituztenek jakin behar lukete, 1837an gobernu progresista batek aurrera eramandako Mendizabalen Desamortizazioak, edota ondare-kontuetan izandako jokabide erradikalak, Frantzia egindakoen antzekoak, ondarearen beraren kalterako izan direla, hura txirotzea, hondatzea eta jabeen eta lur-jabe handien eskuetan kontzentratzea baino ez baitute ekarri. Hirietako burgesiak zein aristokraziak jabetza handiak eskuratu zituzten oso baldintza onuragarrietan (El Pequeño Espasa, Espasa Calpe, Madril, 1988).

Burgesia eta aristokrazia gaitzesten dutenen iritziz botere publikoa eta erakunde handiak ezin dira ondare-ondasun guztiez arduratu eta kezkatu; ez daukate ondasun horiek behar bezala gordetzeko adina baliabide, eta hobeto zainduta eta gordeta daude, jabeengandik eta erabilizailerengandik zenbat eta gertuago eta hurbilago egon. Hala, ondare erlijiosoak zibila baino hobeto gorde da, neurri handi batean, eliztarren eskuetan eta hurbil egoteagatik. Eta hura mantentzeko gastuak ere, neurri handi batean, eliztarrek ordaindu dituzte.

Ondare zibilaren eta erlijiosoaren, zein pribatuaren eta publikoaren arteko liskarraldiak eta desadostasun historikoak ez dira neurri zorrotzak eta momentuak erabiliz konpondu behar. Izan ere, gatazka epe motzera konpontzen dutela eman arren, ez dituzte gauzak etorkizunerantz bideratzen. Erabaki bat hartu aurretik gauzak ongi pentsatu behar dira, interes partikularrak eta alderdikeriak

1. ICOMek Londresen 1974an eta 1983an eginiko proposamenak.

2. Gaur egungo komunikabideek ia egunero izaten dituzte hizpide ondarea eta horren inguruko gatazkak.

alde batera utzita. Ondarea herriarena da, edota, guztiona da, dioten hitzaldi sutsuak bateragarri egingo dira beste hauekin:

Ondarea guztiontzat da, baina helburu eta erabilera zehatz eta jakinekin sortu zen. Eta erabiltzaile horiek, eta ez beste batzuek, zehaztu eta mugatuko dute ondarearen erabilera eta jabetza.

2. Erabiltzailearen zenbait arazo

Erabiltzaileen kopurua areagotzearen eta ondare-ondasunen demokratizazioaren ondorioz, egunak eta ordutegiak murriztu egin dira. Publikoaren kontrola handiagoa da, eta gidari eta langile espezializatuen eskaintza ere zabalagoa da. Horrek guztiak ekarri du eskainitako ondasunak hobeto ezagutzea eta haietaz gehiago gozatzea (Bazin, 1969).

Garbi dago, gaur egun, udal, erakunde eta parlamentuetako ondarte zibila ezin dela edozein egunetan eta ordutan bisitatu, eta erakundeek beraiek proposatutako egun, ordu eta aukera egokiak bilatu behar direla. Beste horrenbeste gertatzen da baseliza, monasterio, eliza eta katedraletako ondare erlijiosoarekin. Eraikinak ez dira egunak dituen hogeita lau orduetan —garai batean bezala— zabalik egoten, lekuaren eta kultura-ondasunen segurtasuna beragatik. Baina, ez dago zalan-tzarik ezarritako orduak, gida didaktikoak eta langile espezializatuak eskainitako ondasunen mundua eta guneak hobetzen eta aberasten ari direla.

Ondare-ondasunak ikustera sartzeko ordaindu behar izateak ere aldeko eta kontrako iritziak ditu. Doako sarrerak, Londresko pinakoteka handietan eta museoetan gertatzen den bezala, aukera ematen du kultura gizarteko biztanle eta nazioarteko turismo gehiagorengana iristeko, baina bisitaldi lasaia eta behar bezalako eragozten du. Sarrera kobratzeak bisitatutako objektuari balio handiagoa ematen dio, zaintzea bultzatzen du eta erakundearen garapena indartzen du. Ordaintzen dena baloratu egiten da; doakoa, berriz, batzuetan, gutxietsi eta hondatu (Riviere, 1989).

Kontua da erakundeek eta udalek gero eta gehiago baloratzen dutela udal, eskualde, eta lurralde bakoitzean gordetako tokiko ondarea, eta saiatu ere saiitzen direla hura sustatzen eta aisialdiko kultura-eskaintzaren barruan eskaintzen. Zirkuituak eta ibilbideak gero eta pluralagoak eta espezializatuagoak dira; gida didaktikoak eta langile espezializatuak ere gero eta hobeto prestatuak eta informatizatuak daude. Kultura-eskaintzak gastronomia eta aisialdirako eskaintzekin (gero eta konplexu eta sofistikatuagoak) elkartzen dira. Erosteke ahalmen handiko biztanle gazteek, eta gero eta gehiago diren biztanle erretiratuek, eskaintza irekia, zabala eta askotarikoa behar dute. Ia udalerrri, lurralde, eta probintzia guztietan kultura-gordailuak —museoak, eraikinak, parkeak, kulturguneak, herriguneak— bultzatzen ari dira. Eta hori guztia erabiltzaile gero eta dibertsifikatuago eta zorrotzagoaren zerbitzura dago³.

3. Edozein herritako Informazio eta Turismo zentroetara hurbildu besterik ez dago zer-nolako eskaintza zabala daukaten ikusteko: liburuxkak, liburuak, DVDak, etb.

Horregatik, agian, eskaintza ez da erabiltzaile masibo eta orokor batengana zuzentzen, populazio minoritario eta espezializatu batengana baizik. Badirudi erabiltzaileak berak markatzen duela turismo-kate handiek egin beharreko eskaintza, eta nahiago duela aisialdi indibidualizatuagoa.

3. Ibilbide primitiboak, antzinakoak eta Erdi Arokoak

Mundu primitiboa eta arkaikoa beti izan da erakargarri eta misteriotsua gizakia-arentzat, haren jatorrira eta kulturaren hastapenetara hurbilarazten baitu. Plazer berezia eta nolabaiteko morboa sorrarazten die edozein pertsona sentikor eta kulturari leize-zulo eta natura-guneak bisitatu eta hango aztarnak ikusteak: gizakien eta animalien hezurrak, lanabesen eta etxeko tresneriaren hondarrak, jatorrizko harkaitz eta estalagmitak, baita labar arteko irudiak ere (Ballart, 1997).

Erabaki zuzena izan da Euskal Herriko labar-artearen aztarnategiak publiko orokor ez-espezializatuari ixtea, zaindu ahal izateko. Hala gertatu da Ekain, Altxerri eta Santimamiñen; eta, jatorrizko leku horien ordez, instalazio eta baliabide modernoak erabiliz, erreproduzioak sortu dituzte, oso ongi eginak eta muntatuak. Zestoako Ekain dugu horren adibide adierazgarria⁴.

Beste horrenbeste esan daiteke Euskal Herrian erromatarren garaiko aztarnategiez eta aztarnategietan bertan jarritako museoez. Hortxe ditugu, Arabako Iruña, Gipuzkoako Irun, eta Nafarroako Andelos. Museo horietako instalazio moderno eta egokiek aukera ematen diote bisitariari erromatarren zibilizazioa, merkataritza, ekonomia, industria eta kultura artistikoa hobeto ulertzeko.

Erdi Aroko mundua eta kultura eta zibilizazioaren ibilbideak, neurri handi batean, Elizaren eskuetan hobeto gordeta eta seinalizatuta egon izan dira, barruan atxikita dagoen ondarearen tamaina eta kalitateagatik. Aipatu beharra dago erakunde politikoek, batik bat Nafarroan eta Araban, ondarea zaintzeko, zaharberritzeko eta katalogatzeko emaniko laguntza ekonomiko oparoa. Korrante kultural eta turistiko handia egituratu da Done Jakue bidearen eta Nafarroako monumentu erromanikoen inguruan, gero eta publiko orokorrako eta espezializatuagoa erakartzen duena.

Oso ondare aberatsa gorde du Elizak, baseliza, monasterio, eliza eta katedraletan; ondare hori ondasun higigarri eta higiezinek ez ezik, ondasun ukiezinek ere, hau da, ondasun akustiko, literario eta usaintsuek osatzen dute. Horren guztiaren ondorioa da, XX. mendera arte, Eliza izatea ondasun hori (erabilera jakin baterako sortua, eta gaur herri guztiaren eskura dagoena) jaso, zaindu eta babestu duena (Hernandez, 1994).

Ez dago zalantzarik mundu garaikidearen egungo sekularizazioak askotan ondare hori erabiltzeko eta mantentzeko tenorean hainbat eta hainbat egoera eta arazoak sortzen dituela. Halere, aintzat hartu beharra dago elkarte erlijiosoek ondare hori hamar mendez eskuzabaltasunez eta etenik gabe zaintzen egindako lan eskerga. Ondare horren inguruko problematika gorrotorik eta apriorismo politi-

4. Jesus Altuna paleoantropologoak Ekaineko leize-zuloez hartutako neurriek kritika zorrotzak sortu zituzten bere garaian; orain, oredea, hainbat leize-zulotan, esaterako, Altamiran gauza bera egiten ari dira.

ko edo ideologikorik gabe konpondu behar da; ez baitute ezertarako balio, eta gutxiago ondarea bera defendatzeko.

Nafarroako eta Arabako erromanikoa aberatsa da eta ongi zaindua dago. Eunate, Torres de Rio, Leire, eta Zangotzako elizak Nafarroan, eta Arabako Zaldondo eta Estibalizkoak Europako nazioarteko erromanikoaren ibilbideetan agertzen dira. Kostaldeko gotikoaren ondasuna Baionan, Getarian, Lekeition, Bilbon, eta barrualdeko gotikoa Gasteizen eta Iruñean, horren monumentala eta itxura ederrekoa ez bada ere, ez da estatuko edo Europako beste edozein tokitako gotikoa baino gutxiago (Kortadi, 1989).

Gune horien erabilera erlijiosoa bateragarri egin behar da erabilera turistiko eta kulturalarekin. Gaur egun, gainera, bada aukerarik bi erabilerek etekin egokia eskura dezaten. Britainia Handiko politika, esaterako, besteok jarraitzeko moduko eredu izan daiteke⁵. Azpimarratzekoa da, bestalde, aipatutako ondarea zaintzeko eta zaharberritzeko Euskal Herriko zenbait erakunde politikok emandako laguntza eskuzabala.

Erdi Aroko arkitektura zibilaren egoera ez da erlijiosoarena bezain ona izan. Zenbait etxe, esaterako, Gipuzkoan Zarauzko Dorre Luzea eta Zestoako Lili Dorrea eraldatuta edota egoera txarrean daude, ondare partikularrak baitira. Gauza bera gertatzen da Gasteizko Portaloiarekin eta Kordoi Etxearekin. Erriberriko Errege-erreginen Jauregia ere aipatu beharko genuke; XIII. mendean eraikitzen hasi baziren ere, XX. mendean Viollet Le Duc arkitektoaren estiloko eraldaketa ikaragarria egin zioten.

Erdi Aroko pintura eta eskultura multzo ederra Nafarroako Museoan ere ikusgai dago. Arabari dagokionez, Erdi Aroko pintura eta eskultura bertatik bertara ikustea badago Estibalizen, Laguardian eta Gazeon.

4. Errenazimentutik gaur egun arte

Errenazimentuko eta Barrokoko aberastasunak lurralde historiko guztietan hobeto banatuta daudela dirudi. Errege-erreginak eta monasterioak sortzegune garrantzitsuak izan ziren Erdi Aroan. Aro Berrian, aldiz, gremioak, kofradiak, landa-eta hiri-burgesia, eta Amerikarekin egindako merkataritza artelanak sustatzeko aberastasun-iturri bihurtu ziren.

Hiribildu eta hiri modernoek eliza eta udaletxe ugari eraiki zituzten. Eta bertako eta kanpoko egileek zurezko erretaula ederrak egin zizkieten. Bertakoen artean honako hauek aipa daitezke: Pierres Picart (Oñati), Andrés de Aroz (Oikia, Zarautz, Itziar), Ambrosio de Bengoechea (Alkiza, Tolosa, Donostia), Juan de Anchieta (Tolosa, Zumaia, Tafalla, Iruñea), Juan de Ayala (Oñati, Zenarruza, Portugalete). Kanpokoan artean, berriz, beaugrantarrak (Bilbo, Balmaseda, Zenarruza), Gregorio Hernandez (Gasteiz, Bergara), Salvador Carmona (Segura), eta Pascual de Mena (Bergara)⁶.

5. Ikus, Wensminster (Londres) Abadia Katedralari eman dioten erabilera eta ordutegi malguak.

6. Honako egileen doktoretza-tesiak eta lan monografikoak kontsultatu: Asunción Arrázola, Isabel Astiazarán, M^ñ Concepción García de Gainza, Mikaela Portilla.

Carlo Fontanak, Churriguerak eta iberotarrek eraiki zuten Loiolako Basilika eta Ikastetxea. Eraikin bikaina oso Gipuzkoarentzat, Euskal Herriko Eskorialtzat hartu izatera iritsi dena. Beste horrenbeste esan dezakegu iberotarrek, carreratarrek, ondategitarrek, Sagarvinagak, Capellastegik eta Beratuak eginitako kanpai-dorreez edota lurralde guztietan eraikitako hainbat eta hainbat udaletxe barrokoz. Horiek guztiek Euskal Herriko udalerrri eta hiriak monumentu ederrez jantzi zituzten. Plaza publikoaren inguruan frontoia, eliza eta udaletxea nabarmentzen dira. Beste herri askoren artean, Elgoibar, Andoain eta Usurbil ditugu horren adibide (Plazaola, 1983).

Jauregietako arkitekturak garapena ikusgarria izan zuen Euskal Herrian, XVII. eta XVIII. mendeetan. Beste adierazpen artistikoetan bezalaxe, gortean, merkataritzan edota itsasoz bestaldeko abenturan aberasturiko gizonak sustatu zuten hura ere. Jauregi horien ezaugarri nagusia honako hau da: estilo herrerianoaren soiltasuna eta eskematismoa, lehendik ere gotikoari bazegokiona.

Euskal Herriko pintura Ignacio de Iriarte (Murillo margolariak oso estimatua) azkoitiarraren eskutik hasi zen bere lekua hartzen, pintura modernoaren eta garai-kidearen hastapenetan. Eta pintura flandestarra ere merkatuaren eta ehunaren eta artilearen ibilbidetik (Lezo, Zumaia, Elgeta, Loiola) iritsi zitzaigun. Metal preziatuak eta Ameriketako eta Europan egindako dirutzak fruituak ematen hasi ziren, eta baita, herri handi eta txikien ondarea aberasten ere. Nobleziak, aristokraziak, eta landa- eta hiri-burgesiak ukitu nazionalistak zituzten, euren leinuaren gorespen eta aintza-irrikarekin batera.

XVIII. mendean udalek izandako garapen ikaragarriari esker, hainbat eta hainbat udaletxe egin ziren. Denak ala denak tipologia antzekoak, euren erloju, ezkutu eta balkoi korrituekin: Oñati, Elgoibar, Arrasate.

Azkoitiko Insausti Jauregia, Oronozko Reparaz Jauregia, Ermuko Valdespinako Jauregia, Iruñeko Ezpeleta Jauregia, Zangotzako Vallesantoro Jauregia, eta Iruñeko Apezpikuaren Jauregia, plaza horietako nobleziaren, kleroaren eta burgesiaren gustu sotilen adibide garbiak dira.

5. Neoklasizismotik arte garaikidera

Arkitekto ilustratuek —Justo Antonio de Olaguibel eta Martin Miguel de Sarcibar Araban, eta, Pedro Manuel de Ugartemendia, Silvestre Perez eta Ventura Rodriguez Gipuzkoan eta Nafarroan— Erdi Aroko eta Errenazimentuko hirigintza-eskema itxiari amaiera eman zioten. Eskema itxi haren ordean, Cerda, Castro, Cortazar, Perez, eta beste hirigile batzuek zabalgunen berrien erretikulu modernoa eta hiri-eskema berriak proposatu eta diseinatu zituzten. Hiri horizontalean zabaldu eta hazi zen, horma eta harresietatik kanpo, eta Neopolis berria sortu zen hiri eta plazetako gune zaharren inguruan. Gasteiz, Bilbo, Donostia, Iruñea, eta —neurri apalago batean— Baiona ditugu Euskal Herriko hiri modernoak hazkunderi buruzko adibide aproposak (Zenbait egile, 1985).

Kalitate eta dotorezia handiko arkitektura zibilaren bi adibide ditugu Olaguibelet Gasteizerako egindako Los Arquillos izeneko etxe arkupedunak, eta Echeverriak Gernikako Batzar Etxerako egindako monumentu multzoa.

Plazak, udaletxeak, diputazio-jauregiak eta batzar-nagusiak (Bizkaikoa, esaterako) eraikitzeko proposamen berriek bide eman zieten arkitekto ospetsuek egin-dako eraikin eta monumentu multzo ikusgarriari. Arkitekto horien artean ditugu Ugartemendia, Miranda, Perez, Cortazar, Escoriaza, Aladren, Morales de los Rios, Echeverria, Rucoba, Rodriguez, Nagusia. Eraikin dotoreak egin zituzten; eta, gainera, Maumejean eta Meyer etxeetako beirate ikusgarriak, eskulturak, pinturak eta zilarrezko eta urrezko piezak eransten hasi zitzaizkien, gaur arte iraun dutenak.

Hiri guztietako plaza arkudunek itxura zibilizatuago eta demokratikoagoa eman zieten hiri eta hiribildu garrantzitsu guztietako hiriburuei.

Arkitektura erlijiosoa ere berritu eta hazi egin zen ekarpen neoklasiko eta neogotikoei esker. Ventura Rodriguezek Iruñeko katedral gotikoari sekulako portada egin zion. Manuel Echave arkitektoak Donostiako Artzain Ona katedrala estilo neogotikoan eraiki zuen. Javier Luque eta Julian Apraiz arkitektoek, berriz, Gasteizko La Asuncion katedral neogotiko berria diseinatu zuten.

Lorategiek, esaterako, Florida Gasteizen, Alderdi Eder Donostian, Baluarteko Barrutikoak Iruñean, eta Baionakoek hiriei arnasa hartzeko biriak eta aisiialdirako gunek emango dizkiete, eta, hiriaren eta landaren arteko muga ezabatuko dute.

Eta arkitektoak hausnartzen hasiko dira nolakoak izan behar duten hiri modernoek, herrigune zaharrek eta herri historikoei; Erdi Aroko hiriaren alternatiba zein izango den, bai eta monumentuak mugari bakartu edo gorputz irten gisa integratu edo txertatu behar ote diren.

Eta burdinaren teknologia berria azaldu zen: Ormaiztegiko bidezubiak, Gustavo Eiffel-ek eginak; Donostiako Norteko geltokiaren estalkia, Letourneur eta Biarez arkitektoek egina; Areeta-Portugaleteko zubi transbordadorea, Alberto Palaciok eraikia; edota, Ricardo Magdalenaren Donostiako Musika Kioskoa. Etxebizitza askotako balkoi eta atariak diseinu modernista eta neoklasikoko burdinaz eta forjatuaz bete ziren. Horrelakoak dira Donostiako Prim, Larramendi, eta Garibay kaleko atari asko eta asko, baita Foru Ibilbidekoak ere.

Eta eskultore eta pintore talde ederra ere sortu zen aipatutako arkitektura guztientzat eta hiri-burgesia berriaren etxebizitza eta jauregientzat ondare ederra eraikitzen hasteko: Antonio Maria Lecuona, Elias Salaberria, Ignacio Diaz Olano, Leon Barrenechea.

Egile horiek, oso azkar, beste sortzaile gazteago eta abangoardistagoei utzi zieten lekua. Hor ditugu, esaterako, GATEPAC taldekoak: Camiña, Aman, Anasagasti, Zuazo, Aguinaga; eta, euren ondorengo modernoak: Fullaondo, Oriol, Aizpurua, Peña Ganchegui, Eusa, eta Moneo. Arrazionalismoek eta abangoardiek eraikinak eta plaza berriak egiteko beste egitura oso bat sortu zuten, bizitza modernoak egun dituen beharren arabera.

Artista plastikoen artean aipatu beharrekoak dira: Dario de Regoyos eta Montes Iturrioz, inpresionisten artean; Ignacio Zuloaga eta Julio Beobide, klasikoagoen artean; Paco Durrio, Francisco Iturrino eta Aurelio Arteta, postinpresionisten

artean; eta, Jorge Oteiza, Eduardo Chillida eta Rafael Ruiz Balerdi, abstraktuenen artean.

Eta arkitekto, hirigile, disenaitzaile, pintore, eskultore eta argazkilariz osaturiko multzo handi batek gure imaginario pertsonal eta kolektiboa lantzen eta eraikitzen jarraitzen du (Plazaola, 1983).

6. Industria-ondarea eta teknologia berriak

Nekazaritza-zibilizaziotik zibilizazio industrialera egindako jauzi azkarrak, eta, zibilizazio industrialetik teknologiarara eta zibernetikara egindako jauzia are azkaragoak, haien ondasunak eraitsi eta txikitzearekin batera, ondare hori zaintzeko eta berreskuratzeko kontzientzia ere sortu du (Gonzalez Varas, 1999).

Azken urteotan udal, erakunde eta bildumagile partikular asko arduratu dira haien ondarea irekitzeaz eta mantentzeaz, bai eta hori guztia era pedagogikoan eta ahalik eta jende gehienari azaltzeaz. Ardogintzaren, gozogintzaren eta zurgintzaren (baserriak eta dorretxeak) museoek bildumak, objektuak, lan-eremuak, egunerokoak eta ludikoak ikusgai dituzte, haien ingurua birsortzeko eta aurkezteko egundoko gaitasunaz. Itsas museoetan, akuarioetan eta ozeanoarioetan edertasun eta mami sozial handiko ontziak, objektuak, erreferentzia plastikoak eta dokumentalak daude ikusgai. Era berean, trenen, jantzien edo erromanizazioaren museoek une historiko bakoitzeko makineriak, usadio eta ohiturak, eta lan-sistemak ezagutzeko aukera ematen dute⁷.

Gauza bera egiten hasi dira industria handiak, parke teknologikoak eta antzeko gune berriak. Herrialde historiko bakoitzeko parkeak beren museo, planetario eta ondare-bildumekin aberasten ari dira, eta beren eremu teknologietako gauzarik onenak zaintzen eta eskaintzen ari dira. Egia da, bestalde, hori guztia egingo bada, inbertsio handiak, gune egokiak, teknologia berriak eta langile espezializatuak behar direla; baina, era berean, egia da horri guztiari esker hainbat gauza sustatzen direla: ezagutza eta ikerkuntza maila handiagoa, turismoaren eta merkataritzaren ibilbideak indartzeko era eta modu berriak, eta, lanpostu ugari sortzeko aukera ere bai. Dena elkarri lotua eta uztartua dago.

Harriaren, zuraren eta burdinaren museoak aisialdi, gastronomia eta merkataritzako ibilbideak taxutzen eta ehuntzen dituzten errealitateak dira.

Egia da beste pentsamolde bat pizten hasia dela gure artean. Lehen zokora botatzen genituen mundu modernoko traste zaharrak (lisagailuak, nekazaritzako lanabesak, sukaldeko tresnak, kafe-errotak, irratiak, iltzeak, giltzak, liburuak, kaxak, kutxak, ohe eta gau-mahaiak, lanparak) orain garbitu eta gorde egiten ditugu, eta, leku publikoetan edo geure etxeetan jarri ere bai. Eta, zenbaitetan, azoka eta anti-kuarioetan erosten ditugu. Pentsamolde berria iritsi da ondarearen eremura, joan den mendearen hasieran artera iritsi zen bezala. Zaharra berria da, zaharrena modernoena da. Berriro aurkitu dugu gure aurrekoek, edo guk geuk, botatakhoa. Eta berreskuratu egiten ditugu; ez bakarrik iraganaren nostalgiagatik, baizik eta objektu biziak direlako, eta, geure buruaren, zibilizazioaren eta kulturaren zati direlako.

7. Museoak. Euskadi Museos. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza. 1995.

7. Natura-gune eta parkeak

Beste horrenbeste esan daiteke natura-gune eta parkeak berreskuratzeaz eta baloratzeaz ere. Denon kontzientzia ekologikoari eta sortzen ari garen kutsadurari esker, gero eta begirune handiagoa diogu naturari eta gero eta gehiago kezkatzen gaitu behar bezala zaintzeak.

Ohiko zoologiko eta animalarioen ordeztu, natura-erreserba eta parkeak ditugu. Baso, parke eta lorategiak bide ematen ari zaie erreserba, estuario, hondartza basati, eta tokiko era guztietako gune eta ekomuseo espezializatu eta zehatzei (Riviere, 1989).

Ameriketako erreserbak bezain handiak —Kaliforniako Yosemite Parkea, esaterako— ez izan arren, hemen ere gero eta natura-gune babestu gehiago ditugu: Aralar, Urdaibai, Bertiz, Aiako Harria, Ulibarri eta beste. Galtzear dauden edo ustiapen basatia jasaten duten zuhaitz, animalia edo landareak ere zaintzen eta babesten dira. Izan ere «homo termineitor»ak ez du inoiz izan egun dauzkan arma bezain sofistikatu eta txikitailerik, gizateria bere burua suntsitzera eraman dezaketenak. Horrela aitortu dute mundu osoko agintari eta jakintsuek.

Izan ere, Euskal Herriko paisaia naturala bere osotasunean eta lurralde guztietan aniztasun eta aberastasun handikoa da. Hor ditugu, Pirinioetako mendi garaiak eta Bizkai eta Gipuzkoako mendiak; Araba eta Nafarroako behe-lurralde erromantizatuak; Lapurdi eta Behe Nafarroako belardi eta muinoak. Leku horiek guztiek eta bertan dauden hamaika ibarrek, haranek, ibaiek, eta kostaldeak munduko toki askotako jendea eta turista erakartzen dituzte.

Geografia-aniztasun hori zaindu eta begiratu beharra dago, pixkanaka-pixkanaka desegiten eta hondatzen ari baikara. Tamaina handiko errepideek, zubiek, komunikabide handiak eraikitzeak (batik bat lurekoak), energia berritzaile berrien beharrak eta natura berreskuratzeke lanek, ingeniartzako eta eraikuntzako lan eskergak gauzatzera garamatzate, kutsadura larria eta paisaia desitxuratzea dakartenak.

Ahots asko altza dira edozein prezioetan muga gabe hazteko proposamen horien aurka. Benetan hartu behar ditugu eta arrazionalki neurtu, hemendik denbora laburrera kexaka ibili nahi ez badugu. Zenbait herrialde ongi samar ari dira; Frantzia, esaterako. Gu, aldiz, ez horren ondo.

Bestalde, naturari, faunari eta landarediari diegun begirunea herri eta hiriei aplikatu behar genieke, leku horietan bizi baikara hiritar gizarte gehiena. Parkeak, lorategiak, kaleak, eta etxeak etengabe eta era kolektiboan zaindu behar dira. Gure gazte eta helduek —hitzetik hortzera ekologismoa hitza darabiltenak— festetan eta asteburuetan gehiegi txikindu, zikindu eta kutsatzen dute. Kutsadura akustikoa bera ere, egunez nahiz gauez, osasun orekatu batentzako maila jasanezinetara iristen ari da.

8. Ondarea zaintzeko arazoak

Neurrigabekeria horrek altxor publikoari ez ezik, altxor partikularri ere gastu handiak sorrarazten dizkio, eta horrek geure ondarea modu iraunkorrean zaintzeko eta babesteko gaia berraztertzeraz eramango gaitu. Izan ere, gaur egun dagoeneko ezinezkoa da ondarea mugagabe haztea eta erabiltzea, eta hura zaintzeko dauzkagun baliabideak ere mugatuak dira. Irudimenaz eta talentuz bete behar dugu geure burua, baina baita hiritar kontzientziaz ere. Neurri azkarrak, zorrotzak, sozialak eta guztiontzako onuragarriak hartu behar dira⁸.

Adibidez, Le Corbusier arkitektoak duela ia ehun urte Atenasko Gutunean egindako proposamenak betetzea egun ezinbestean bete beharreko arau izan beharko litzateke. Eta, hala eta guztiz ere, motel eta berandu ari dira aplikatzen, ttanttaka, eta gaizki hezitako herritar askoren mespretxupean. Hiria eta bere ondarea ezer baino lehenago oinezko hiritarrarentzat eta erabiltzailearentzat dira, eta ez autoentzat eta kutsadurarentzat. Oinezkoak, bizikletak, autoak edota garraio publikoak zirkulatzeko errail bereziak ezarriz doaz, pixkanaka-pixkanaka, gure herri eta hirietan. Noiz edo noiz, etxebizitzan eta industriaguneen aurrean, eta ongi zaindutako egoitza multzoetan parkeak eta lorategiak agertzen dira. Gorputza eta espiritua lantzeko tokiak, hala nola kiroldegiak, kirol-campusak, liburutegiak, zinematekak, museoak, lorategiak, elizak, eta hausnartzeko lekuak, gero eta ugariagoak dira. Oso gutxi dira etxebizitzetatik gertu dauden lantegiak, autoen erabilera ezerezteko eta auto-pilaketarik ez sortzeko⁹. Ikusten den bezala, herrialde aurreratuagoenetan onartu eta landutako proposamenak oraindik ere oso urriak dira, eta oso poliki ari dira ezartzen herritar gehienek errezeloa dela-eta. Izan ere, herritarrek erabilera eta jokabide okerrak barneratu dituzte, prezioa zein dela ere.

Gauzak horrela, heziketa-politika bat beharrezkoa dugu. Hori egin ezean, ondarea bera jan eta hondatu egingo baitugu.

Bestalde, indarrean egon beharko luke jada gure artean araudi zorrotzago eta mugatzaileagoak: alde batetik, hezteko; eta, bestetik, nahita edo nahi gabe ia herritar guztiok egiten ditugun gehiegikeriak zigortzeko. Gehiegikeria horien artean ditugu kutsadura atmosferikoa, akustikoa, ikusmenekoa eta espaziala, bai eta ondare-ondasunak era desegokian eta okerrean erosi eta erabiltzea. Gure herrian permisibitate eta laxotasun handiegia dago, Europako inguruko beste herrialdeetan ez bezala. Herrialde horietan zigortu egiten dira neurrigabekeriak, eta, batzuetan, zigorrak maila gogorragokoak izan ohi dira¹⁰.

Eskola eta unibertsitateaz gain, familiak eta gizarte osoak —politikak gehienbat— ondarearen balioak irakatsi behar dituzte; artea eta kultura artisten kontua soilik ez delako, eta egiteko hori eskolaren eskuetan bakarrik utzi behar ez delako. Arlo horretan ere, beste askotan bezalaxe, ardura nagusia familiaguneak dauka, eta bigarren lekuan letorke eremu sozio-komunitarioa.

8. Ley del Patrimonio Cultural Vasco. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza. 1990.

9. LE CORBUSIER. Carta de Atenas. 1933.

10. Ondare historiko eta artistikoa. Madril. Estatuko Buletin ofiziala. 1989.

Hona iritsita azpimarratu beharra dago unibertsitateek, museoek eta kultura (herritarra zein goi-mailakoa) ekoizteko eta hedatzeko zentroek zer-nolako garrantzia daukaten jendea hezteko. Kultura-etxeak, mediatekak, liburutegiak, ludotekak, fonotekak, zinematekak, kiroldegiak, gimnasioak, igerilekuak... gorputza eta espiritua lantzeko leku eta espazio egokiak, ezartzen eta areagotzen ari dira geure artean, kudeaketa politiko onari esker. Komeni da atal honetan ere gehiegizko burokrazian eta formalismoan ez erortzea, horrek ez baikaramatza inora, kultura bera itoaraztera eta hilaraztera ez bada (Zenbait egile, 1988).

Esan dezagun amaitzeko, Ondarea sortzeko, zaintzeko eta hedatzeko baliabi-deak izaten direla beti aurrekontu publikoetan ahulenak eta murriztenak. Horretan erantzukizun zuzena daukate politikoek, askotan ezjakin samarrak izaten baitira.

9. Ondarea gizateriaren eta herrien isla

Ez dago ukatzerik ondare historikoa eta artistikoa gizateriaren adierazpen eta islarik kualifikatuena eta nabarmenena dela, baita sortu eta osatzen dituzten herri guztiena ere. Goethek zioenez, ondarean islatzen dira herrien espiritua eta arima. Hor jartzen da agerian bere sortzaileen ahalegina eta jendeen ahalegin kolektiboa. Ez dago herririk, txiro edo garatua izan, txiki edo handia izan, bere ondarerik ez duenik. Denak ala denak berdin tratatu, zaindu eta errespetatu behar dira kulturen kontzertu unibertsalean. Guztien helburua izango da euren tradizioek eta kulturak garapen iraunkorra izatea, eta ondareak *in situ* zaintzea eta mantentzea.

Puntu honetan aipatzekoa da herri eta kultura askoren asmo zintzoa: gerra-edo gatazka-garaietan suntsitu zizkieten ondareak euren eskuetara itzularaztea. Badakigu egoerak mota askotakoak, konplexuak eta istilutsuak izaten direla, baina ez dago zalantzik jatorrizko kultur eta herrialde askotako arrazoizko eta ondo arrazoitutako eskaerei behar adinako arreta eskaini behar zaiela. Denok badakigu zer gertatu zitzaion Egiptoko ondareari, Greziakoari, ondare prekolonbinoari edota euskal ondareari. Gaur egun asko dira ondare horiek euren jatorrizko eskuetara itzultzeko aldarrikatzen dutenak. Badakigu bilduma handiak, museoak eta jabetzak noiz eta nola egin diren, eta zer-nolako sufrimenduak, kostuak —ez bakarrik ekonomikoak—, oinazeak eta hildakoak eragin dituzten. Ez da ez komeni alderdi horietaz ahaztea; ez, behintzat, ezkutukoak, ezezagunak edota ahaztuak izan direlako.

Herri eta herrialde bakoitzak bere ondarea zaindu eta sustatu behar du, eta hura mantentzeko beharrezko gune natural eta artifizialak prestatu ere bai. Egia esan, egun sentsibilitate handiagoa dago ondarea zaindu ahal izateko gordailuak egokitzen eta eraikitzen. Baina, arriskua izan daiteke edozein jarduera edo giza ekoizpen museoan sartu nahi izatea (Kortadi, 2006).

Hala eta guztiz ere, oraindik zabarkeria eta axolagabekeria dezente dago euren buruak herrialde eta herri garatutzat dauzkaten artean, nahiz eta orain egoera konpontzen ari dela ematen duen. Beste askoren artean, Madrilgo Museo Antropologikoa eta Etnologikoa, eta Donostiako San Telmo Museoa ditugu bi adibide adierazgarri.

Gobernu-politikek beti nahiago izaten dituzte jarduera puntual, ikusgarri eta neurriz kanpokoak, hazkunde naturala, koherentea eta egokia duenaren gainean

jarduteko politika koherenteak baino. Gordailu eta museo handiak (arkitektura eta parke ikusgarriez hornituak) gustagarriagoak zaizkio jendeari lehendik daukana bultzatzea eta hedatzea baino. Hiriak zein herriak norgehiagoka dabilta arkitekto ospetsuak zeinek lortuko egin beharreko lanak egiteko (Rico, 1994).

«Erdi Aroarentzat katedralak bezain adierazgarriak dira museoak hiri modernoarentzat» esan zuen aspaldi Riviérek. Eta egungo hiriak edozein objektu eta bildumatarako gune eta gordailu berri eguneratzen, garatzen edo eraikitzen ari dira. Gauza horiek txertatu direneko hiria eta aldea dinamizatzen saiatzen dira. Askotan ia objekturik gabeko museoak, funtsak edo bildumak zabaltzen dira. Eta, halere, egundoko arrakasta komertziala eta turistikoa izaten dute; ez, ordea, kulturala. Horrelakoak ditugu Bilboko Guggenheim Museoa, edota Londresko Tate Moderne Museoa. De Meuron eta Herzog arkitekto taldea, Moneo, Siza, Gehry, Stirling, Venturi, munduaren lau puntu kardinaletako hiri askotan daude, museoei buruzko proposamen interesgarriekin (Moneo, 2004).

Era berean, egia da, zenbait herrixka eta hiribildutan, tamaina txikiko museo eta natura-parkeak sortzen hasi direla, bisitariaren gozamenarako. Izan ere, bost zentzumenentzat gozagarri izateaz gain, ezagutzak zabaltzeko ere baliagarri dira oso. Ezin esan, hortaz, dena azalera handiak eta lege-haustekak direnik, hiri konurbazio txikietan ere gauza asko ongi egiten baitira, eta horri esker euren ekonomia ezegonkor edo prekarioak zabaldu eta garatzen dituzte.

Egia da egun gure ondasunak —txikia edo handia, geurea edo arrotza izan— atentzioa emateaz gain, zerbait gehiago eskatzen digula; eta, gainera, herrien izaera hobeto adierazteko eta azaltzeko inbertsio egokiak exijitzen dituela gero eta maizago.

Bibliografia

- Alonso Fernandez, L. A. (1993): *Museología. Introducción a la teoría y práctica del museo*, Istmo, Madril
- Ballart, J. (1997): *El patrimonio histórico y arqueológico: valor y uso*, Ariel, Bartzelona.
- Bazin, G. (1969): *El tiempo de los museos*, Daimon, Bartzelona.
- Gonzalez-Varas, I. (1999): *Conservación de bienes culturales: teoría, historia y principios y normas*, Cátedra, Madril.
- Hernandez, F. (1994): *Manual de Museología*, Síntesis, Madril.
- Kortadi, E. (1989): *Euskal Artearen Historia. Gotikoa*, Kriselu, Donostia.
- , (2006): *Programa de Museología y Conservación de Bienes Culturales*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.
- Leon, A. (1990): *El museo. Teoría, praxis y utopía*, Cátedra, Madril.
- Moneo, R. (2004): *Inquietud teórica y estrategia proyectual en la obra de ocho arquitectos contemporáneos*, Actar, Bartzelona.
- Plazaola, J. (1982): *Historia del Arte Vasco*, Etor-Ostoa, Lasarte.
- Rico, J.C. (1994): *Museos. Arquitectura. Arte*, Silex, Madril.
- Riviere, G.H. (1989): *La museología*, Akal, Madril.
- Zenbait egile (1982): *Euskal Herriko Atlas*, Erein, Donostia.
- , (1985): *Arkitektura Neoklasikoa Euskal Herrian*, E.J.B., 3. liburukia.
- , (1988): *Archivos, Bibliotecas y Museos*, X Congreso de Estudios Vascos, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

